



**EBAZPENA, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, 2024-2025 ikasturteko lehenengo epeko irakasleentzako prestakuntza-jardueretako behin betiko zerrendak ebatzi eta horiek jakinarazten dituen.**

Hezkuntza sailburuak 2024ko maiatzaren 13an (maiatzak 21eko EHAA) emandako Aginduaren bidez, Prest Gara 2024-2025 Planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleek prestakuntza- eta hobekuntza-jardueretan parte hartzeko baldintzak ezarri ziren.

2024ko ekainaren 7ko ebazpenaren bidez Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak prestakuntza-jardueren behin-behineko zerrendak ebatzi zituen, eskaera bakoitzaren egoera azalduz (onartua, erreserban edo baztertua), eta alegazioak aurkezteko edo parte hartzeari uko egiteko hamar eguneko epea ireki zen.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta eta Hezkuntzako sailburuaren 2024ko maiatzaren 13ko Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuz, hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa:** Prestakuntza-jardueren behin-betiko zerrendak ebatzea, eskaera bakoitzaren egoera azalduta: onartua, erreserban edo baztertua, azken kasu honetan, zergatia aipatuz; Hezigunean kontsultatu ahalko da.

**Bigarrena:** Plaza libreak dituzten ikastaroen behin-betiko zerrenda jakinaraztea (I. Eranskina). Ikastaro horietan parte hartu nahi dutenek Hezigunea aplikazioaren bidez eskaera aurkeztu ahalko dute.

**Hirugarrena:** Eskaerak, baldintzak betetzen badituzte, jasotze hurrenkeraren arabera onartuko dira; plazak bete arte edo ikastaroa hasi baino egun batzuk lehenagorarte. Izen emateko aukera ekainaren 25ean gaituko da.

**Laugarrena:** Gutxienez bete beharreko plazak bete ezin izan dituzten ikastaroak bertan behera uztea (II. Eranskina).

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean

**RESOLUCIÓN de la directora de Aprendizaje e Innovación Educativa, por la que se resuelven y dan a conocer las listas definitivas de las actividades de formación de profesorado correspondientes al primer plazo del curso 2024-2025.**

Mediante la Orden de 13 de mayo de 2024 (BOPV de 21 de mayo) del consejero de Educación se establecieron las condiciones para la participación del profesorado no universitario de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las actividades de formación y perfeccionamiento dentro del Plan Prest\_Gara 2024-25.

Mediante Resolución de 7 de junio de 2024, la directora de Aprendizaje e Innovación Educativa resolvió las listas provisionales de cada actividad formativa, indicando la situación de cada solicitud (admitida, en reserva o excluida), y dio un plazo de diez días para presentar alegaciones o desistir de la solicitud.

Finalizado el plazo de alegaciones y en aplicación del artículo 7 de la Orden de 13 de mayo de 2024, del Consejero de Educación,

**RESUELVO:**

**Primero:** Resolver las listas provisionales de cada actividad formativa, indicando la situación de cada solicitud: admitida, en reserva o excluida, señalando el motivo en este último caso; se podrá consultar en Hezigunea.

**Segundo:** Dar a conocer el listado definitivo de cursos con plazas libres (Anexo I). Quienes deseen participar en esos cursos podrán presentar la solicitud a través de la aplicación Hezigunea.

**Tercero:** Las solicitudes, si cumplen los requisitos, serán admitidas en orden de solicitud; hasta llenar las plazas o hasta unos días antes de comenzar el curso. La posibilidad de inscribirse se habilitará el 25 de junio.

**Cuarto.-** Anular los cursos en los que no se han conseguido cubrir las plazas que se tenían que cubrir como mínimo (Anexo II).

Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma

Amaia Agirre Pinedo